

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUIAKO UDALA

**Alkatearen dekretua, zeinaren bidez onesten baita Zuiako Udaleko zerbitzu askotarako beharginaren plazaren behin-behineko izendapena, praktikaldian, funtzionarioen araubidean, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesuan**

Aintzat hartu dira Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak.

Deialdiaren oinarriak 2022ko abenduaren 16ko ALHAOn (144. zk.) argitaratu ziren, eta deialdiaren laburpen bat 2023ko maiatzaren 11ko BOEn (112. zk.).

Abenduaren 28ko 20/2024 Legearen ondoriozko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen kudeaketa esleipena Arabako Foru Aldundiaren esku utzi zen.

Alegazioak aurkezteko epean ez da alegaziorik aurkeztu behin-behineko puntuazioekin epaimahai kalifikatzaileak hartutako erabakiaren aurka.

Behin betiko puntuazioekin epaimahai kalifikatzaileak hartutako erabakia eta izendapen proposamena ikusita, honako hauek dira puntuaziorik handiena lortu duen izangaiek eta, beraz, lehenengo eta bigarren geratu direnak:

IZEN-ABIZENAK	NANA
Raúl Aceves Martínez de Marigorta	*4671****
Raúl Fernández de Gamboa Uriondo	*8602****

Izangaiek aurkeztutako dokumentazioa aztertu da.

2024ko irailaren 10eko 432 zenbakiko Dekretuak zerbitzu askotarako beharginaren plaza esleitzea proposatzen du.

Aztertu da alegazio epean alegaziorik aurkeztu ez dela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Bat etorritik 14. eta 15. oinarrietan jasotakoarekin, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.1.h) artikuluan xedatutakoaren babesean, hau

#### EBAZTEN DUT

**LEHENENGOA.**– Raúl Aceves Martínez de Marigorta (NANA: \*4671\*\*\*\*) behin-behinean izendatzea, Zuiako Udaleko zerbitzu askotarako behargin lanposturako, funtzionarioen araubidean.

**BIGARRENA.**– Lanpostua behin-behinean beteko du 3 hilabetez, probaldia edo praktikaldia egingo baitu, Zuiako Udalean, bat etorritik abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorren 15. oinarrian ezarritakoarekin.

Izendapen horiek ebazpen honen egunetik aurrera izango dituzte administrazio ondorioak.

**HIRUGARRENA.**– Lanpostuen atxikipena behin-behinekoa izango da praktikaldia amaitu arte, bat etorritik deialdiaren 15. oinarriaren xedatutakoarekin.

LAUGARRENA.– Aldi horrek irauten duen bitartean, langile lan kontratadun finko eta praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak normaltasunez beteko dituzte beren egitekoak, eta dagozkien ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute.

Praktikaldia amaitu eta, hala badagokio, gainditu ondoren, karrerako funtzionario izendatuko dira, eta izendapena ALHAOn eta legez ezarritako beste edozein tokitan argitaratuko da.

BOSGARRENA.– Funtzionario izendatutako izangaiek hilabeteko epea izango dute, izendapena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, legez ezarritako zin egitea edo hitzematea egiteko eta lanpostuaz jabetzeko, korporazioko idazkariaren aurrean. Zin egitea edo hitzematerik egiten ez badute edo lanpostuaz jabetzen ez badira, eskubide guztiak galduko dituzte, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

SEIGARRENA.– Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, eta web orrian, udalaren ediktu taulan eta ALHAOn argitaratzea.

Murgia, 2024ko irailaren 26a

*Alkate-lehendakaria*  
**UNAI GUTIÉRREZ URKIZA**